

Logistika integrala aditu ikastaroaren itxiera.

2010/06/07

Joan zen ostiralean Gasteizen dagoen Arabako Merkataritza Ganberako ekitaldi-aretoan, Logistika integrala aditu ikastaroaren amaiera ekitaldia egin zen.

Ikastaroaren XI. edizioa Arabako Merkataritza Ganberak antolatu zuen, Mondragon Unibertsitateko Goi Eskola Politeknikoko Mekanika eta Industria Produztioko Departamentuaren zuzendaritza teknikoarekin eta horrek koordinatuta, eta jardunaldi irekia izan zen; bertan, ekitaldian zeuden industri eta logistika enpresetako produkzio, banaketa eta hornidurako arduradunek enpresetan garatu diren proiektuak aurkeztu eta defendatu zituzten.

